

Topalekua

86 zk. 2014ko abuztua

agosto 2014 - n.º 86

1. orr.: Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ren 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartu du. Horrez gain, tituludunen laneratzeari buruzko inkestaren emaitzak eta gizarteari kontuak emateko adierazle-sistema aztertu ditu

2. orr.: UPV/EHU-k aurrerapenak egin ditu gizarte-helburuak betetzen

3-4. orr.: UPV/EHU-n 2010ean lizentziatu ziren 10 pertsonatik 7k lana dute, eta enplegua sei hilabetetik beherako epean aurkitu zuten

GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHU-ren 2013ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTU DU. HORREZ GAIN, TITULUDUNEN LANERATZEARI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK ETA GIZARTEARI KONTUAK EMATEKO ADIERAZLE-SISTEMA AZTERTU DITU

UPV/EHU-n 2010ean lizentziatu ziren 10 pertsonatik 7k lana dute. Horrekin batera, Unibertsitatearen adierazle gehienak hobetu egin dira, prestakuntzari, ikerketari edo entzute akademikoari dagokienez. Bi ondorio nagusi horiek jakinarazi dituzte, batetik, «UPV/EHUK gizar-teari kontuak emateko adierazleen sistema» azterlanak, eta, bestetik, UPV/EHU-n unibertsitate-titulua lortu zuten pertsonen laneratzeari buruzko azterlanak (Encuesta de Inserción laboral de titulados universitarios). Gizarte Kontseiluak sustatu ditu azterlan horiek, eta osoko bilkurak aztertu zituen azken bileran.

Bestalde, osoko bilkurak UPV/EHUren aurrekontuaren kontabilitate-egoerak, 2013ko ekitaldikoak, onartu zituen. Ekonomiari eta finantzaketari buruzko informazio hori Kontseiluari aurkeztu zitzaion gizar-teari kontuak emateko prozesuan. Horren arabera, 2013ko ekitaldiaren amaieran 116.000 superabita zegoen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari honako proposamen hauek egitea erabaki zuen: UPV/EHU-n 9 master-ikasketa ofizial berri eta doktorego-ikasketa berri bat ezartzea, zazpi master-ikasketa aldatzea eta lau master-ikasketa kentzea (ikasleei dagozkien deialdiak bermatuta).

Bilera berean, osoko bilkurak graduondoko 3 ikasketaren eta sortu berria den gradu-

berezko titulu baten tasak ezarri zituen, graduondoko 25 ikasketaren eta 2 gradu lotetsiren prezioak ez aldatzea erabaki zuen, eta graduondoko 5 ikasketaren tasak aldatu zituen.

Osoko bilkuraren bilera berean, Kontseiluak erabaki zuen Hezkuntza Ministerioaren 6 lankidetzeta-beka esleitzea, Eusko Jaurlaritzak onartutako ikerketa-taldearen puntuazioari jarraituta. Beka horiek 2014-2015 ikasturtekoak dira, eta sail batzuei zuzenduta daude. Hona hemen sailok: Kimika Organikoa I, Kimika Analitikoa, Neurozientziak, Analisi Ekonomikoaren Oinarriak I, Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia eta Telekomunikazioko Ingeniaritza.

Osoko bilkurak, halaber, Gizarte Kontseiluaren finantzaketa-informazioaren egoerak, 2014ko ekainaren 30ekoak, onartu zituen, bai eta UPV/EHUren aurrekontuaren aldaketa batzuk ere.

Azkenik, osoko bilkuraren bilera horretan honako kontseilukide hauek hasi ziren Gizarte Kontseiluan: Félix Tobar, Josu Aboitiz eta Adolfo Apiñániz, Eusko Legebiltzarraren ize-nean. Hutsik zegoen kargu bat hartuko dute, eta Paulino Corcuera eta Joseba Gurutz Gómez de Segura ordeztuko dituzte, azken horiek ere Eusko Legebiltzarraren ordezkariak baitziren.

UPV/EHU-k AURRERAPENAK EGIN DITU GIZARTE-HELBURUAK BETETZEN

Ekonomia-krisiak eta aurrekontuen murrizketek eragin dituzten inguruabar latzak izanda ere, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen adierazle gehienak hobetu egin dira, prestakuntzari, ikerketari, hezkuntza-normalizazioari, entzute akademikoari eta gizarte-erantzukizunari dagokionez. Ondorio hori jakinarazi du **«UPV/EHUk gizarte-erantzukizunak emateko adierazle sistemak»** azterlanaren 2014ko bertsioak. UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak urtero egiten du azterlan hori, eta Herriko Unibertsitatearen gizarte-helburuak 2008tik gaur egun arte zenbateraino bete diren neurtzeko aukera ematen du. Gako diren 20 adierazleren bidez egiten da neurketa.

2014ko azterlanak (2012ko informazioa jasotzen du, adierazle guztien datu osoak urte horretan azkeneko aldiz jaso zirelako) erakusten du hobekuntza are nabarmenagoa dela epe luzeko bilakaera aintzat hartzen baldin badugu. Horren harira, azken azterlanaren datuek erakusten dute 10 adierazle hobekuntza nabaria izan dutela, eta 8 adierazle apur bat egin dutela atzera (haietako bi ez dira aldatu). Epe luzeko datuak, 2008tik aurrerako segida historiko osoa eta 2006ko datuak jasotzen dituztenak, aintzat hartzen badira, 20 adierazletik 16 hobetu dira.

Txostenak UPV/EHUri buruzko ikuspegi orokorra ematen du, bai eta epe laburreko eta epe luzeko bilakaera ere. Horrekin batera, honako oinarritzko datu hauek ere jasotzen ditu: emandako balioa, gizarte helburuen betetze-maila eta konparazio bat, ezaugarri antzeko unibertsitateen emaitzen eta UPV/EHUn emaitzen artean. Txostenaren seigarren edizioa da hori, 2008an informazioa biltzen hasi zenetik. Hortaz, datu fidagarriak eskaintzen ditu, eta gako diren honako arlo hauek tan ondorioak atera daitezke UPV/EHUn bilakaerari buruz: testuinguruan, sartzeko-mailan, prestakuntzan, inguruneari egokitzea, ikerkuntzan, hizkuntza-normalizazioan eta gizarte-erantzukizunean. Azterlan osoa Gizarte Kontseiluaren webgunean (www.gizartekontseilua.com) kontsulta daiteke.

Azterlanaren azken bertsioaren arabera, Unibertsitateak zenbait alderdi hobetu ditu. Hona hemen alderdiok:

- Prestakuntza-arloko adierazleek oso bilakaera ona erakusten dute epe laburrera zein epe luzera. Etekin-eta arrakasta-tasak nabarmen hobetu dira. Horrekin batera, aldiz, eskola-uztearen tasa ere igo egin da, aurreko urteko emaitzekin erkatuta.
- Nazioartekotze-atalari dagokionez, emaitzak xume samarrak izan arren, agerikoa da gero eta ikasle atzerritar gehiago daudela, bai graduiko ikasketetan (lehen eta bigarren zikloetan), bai master-ikasketa ofizialetan matrikulatuta.
- Unibertsitatearen entzutea neurtzen duen adierazleak, «kalitate- edo bikaintasun-aiipamena duten doktoregoen proportzioa» neurtzekoari dagokionez, maila onari eutsi zion azken urtean.
- Ikerkuntzari dagokionez, irakasleek defendatutako doktorego-tesiak eta ekoizpen zientifikoa neurtzen dituzten adierazleak hobetu egin dira.
- «Hizkuntza-normalizazioa»ri dagokionez, hots, graduiko eta lehen eta bigarren zikloetako euskarazko kredituen kopurua aintzat hartuta, euskaraz eskaintzen diren irakasgaien kopurua pixkanaka ari da gora egiten: bost urtean ehuneko 11 puntu handitu da.
- «Gizarte-erantzukizun»ari dagokionez, «irakasle eta ikerlari diren emakumezko doktore»en kopuruak

hobetzen jarraitu du, nahiz eta graduatan eta lehen eta bigarren zikloetan matrikulatuta dauden emakumezko ikasleen tasak behera egin.

Bestalde, txostena egiteko ikertu diren adierazle batzuek («Finantzaketa», «Ikerkuntza» eta «Ingurunearen beharrei egokitzea/laneratzea») krisiaren ondorioak erakusten dituzte, batez ere, epe laburreko bilakaeran. Zehatzago esanda:

- Finantzaketa-atalean transferentzia arrunten eta gastu arrunten arteko tasa murriztu da ikasle bakoitzeko, aurreko urteko emaitzekin erkatuta. Dena den, adierazle horien epe luzeko bilakaera, duda barik, ona da.
- Txostenaren arabera, «Ingurunearen beharrei egokitzea/laneratzea» arloko adierazle batzuek okerrera egin dute; beraz, pertsona tituludunek, herritar guztien aldean, lan-merkatuan emaitza hobekuntza egia bada ere, ikasketekin bat datorren enplegu-tasa, 2009koa, aurreko urtekoa baino txikixeagoa da (laneratze-tasa titulua lortu eta hiru urte igaro ondoren aztertzen da). Gainera, lehenengo lanpostua lortzeko beharrezkoa den denbora ere areagotu egin da, eta aurreko urtean antzeman zen joera txarra indartu egin da.
- Ikerkuntza-arloan, datuek erakusten dute nolabaiten joera dagoela B+Grako finantzaketa murrizteko. Neurketa hori egiten da zuzeneko kontratuetatik etorritako diru-sarrerak erabilita. Bestalde, patente-eskaeren kopuruak ere behera egin du.

UPV/EHUn adierazle-sistema, gizarte-erantzukizunak emateko

3. Adierazlearen laburpena

ARLOAK	ADIERAZLEAK	BILAKAERA	
		Epe luzekoa	Azken datua
1. Finantzaketa	1. Transferentzia arruntak / gastu arruntak	↑	↓
	2. Gastu arruntak/ikasleko	↑	↓
2. Sartzeko-maila	3. UPV/EHUn estaldura-tasa	=	=
3. Prestakuntza	4. Eskola-uztearen tasa	↑	↑
	5. Etekin-tasa	↑	↑
	6. Arrakasta-tasa	↑	↑
	7. Enpresetan egindako borondatezko praktiken tasa	↑	↑
4. Ingurunearen beharrei egokitzea	8. Tituludunek jaso dituzten gaitasunei buruzko iritzia	↑	↓
	9. Ikasketekin bat datozen lanpostuen tasa	↑	↓
	10. Lehenengo enplegua lortu arte iragan den denbora	↑	↓
5. Ikerkuntza	11. Kontratazio zuzenetik etorritako diru-sarreraren tasa	↓	↓
	12. Doktorego-tesiak 100 irakasleko	↑	↑
	13. Patente-eskaera milioi biztanleko	↑	↓
	14. Ekoizpen zientifikoa 100 irakasleko	↑	↑
6. Erakarpina eta izen ona	15. Graduaten eta lehenengo eta bigarren zikloetan matrikulatuta dauden atzerritar ikasleen tasa	↑	↑
	16. Atzerriko unibertsitateetatik etorri diren master-ofizialeko ikasleen tasa	↑	↑
	17. Kalitate- edo bikaintasun-aiipamena duten doktorego-programen ehunekoa	↑	=
7. Hizkuntza-normalizazioa	18. Euskarazko kredituen tasa graduatan eta lehenengo eta bigarren zikloetan	↑	↑
8. Gizarte-erantzukizuna	19. Irakasle eta ikerlari diren emakumezko doktoreen tasa	↑	↑
	20. Graduiko ikasketetan eta lehen eta bigarren zikloetan matrikulatuta dauden emakumeen tasa	↓	↓


(↑) Adierazleak gora egin du (epe luzean edo azken ikasturtean).

(↓) Adierazleak behera egin du.

(=) Adierazleak egonkor jarraitu du.

UPV/EHU-n 2010ean LIZENTZIATU ZIREN 10 PERTSONATIK 7k LANA DUTE, ETA ENPLEGUA SEI HILABETETIK BEHERAKO EPEAN AURKITU ZUTEN

JARDUERA-, ENPLEGU- ETA LANGABEZIA-TASAK, EZAGUTZA ARLOAREN ETA SEXUAREN ARABERA



UPV/EHUko lizentziadunen enplegu-tasa %69,4 izan zen 2010ean; hortaz, aurreko ikasturteko lizentziadunen tasa-ekin erkatuta, 2,6 puntu txikiagoa da 2010ekoa. Tasa hori 25 eta 34 urte bitarteko euskal gazte-multzoaren enplegu-maila baino handixeagoa da. Teknika-arloko eta osasun-arloko titulazioetan, tasak %75era eta %82ra iritsi dira, hurrenez hurren.

Ikasketak amaituta, enplegua aktiboki bilatzen hasi eta lehenengo kontratua lortu arte iragan zen batez besteko epea 5,76 hilabetekoa izan da, eta alde nabarmenak egon dira, graduatuen ezagutza-arloaren arabera. Hori horrela, osasun-arloko lizentziadunek hiru hilabete igaro aurretik lehenengo lanpostua aurkitu zuten. Humanitateen arloan lizentziadunek, ordea, ia zazpi hilabete eman behar izan zuten enplegu bila. Teknikoak eta ekonomiko-juridikoak batez bestekoaren azpitik jarri ziren; esperimentalak eta gizarte-arlokoak, ordea, batez bestekoaren gainetik.


Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Gizarte Kontseiluak eskatuta, UPV/EHU unibertsitate-titulua lortu zuten pertsonen laneratzeari buruzko azterlan bat egin zuen, zehazki, **Estudio de Incorporación a la vida activa de personas tituladas universitarias en la UPV/EHU** (2010ekoa). Azterlan hori Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztu zen joan den uztailaren 23an. Segidan, txosten

horretan jasotako ondorio batzuk azaldu ditugu. Azterlan hori egiteko, urte horretan Euskal Herriko Unibertsitatean lizentziatu ziren 7.197 ikasleren %76,2ren iritzia jaso zen.

Txostenak eman dituen datu garrantzitsuenen artean, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Karrera amaitu eta lehenengo enplegua lortu arte iragan den bora guztira 9 hilabetetik gorakoa izan da; beraz, ia hiru hilabete gehiago behar izan dira 2008. urteko emaitzekin erkatuta. 2008an nabarmentzen hasi ziren krisiaren ondorioak.
- **Jarduera-tasa** %91,2ra iritsi zen (eta 2008koa %92,2 izan zen). Lanposturik ez duten gehienek ikasten jarraitzen dute.
- Hirugarren mailako prestakuntza duten ikasleen %79,7k lortu dute beren **ikasketekin bat datorren enplegu** bat. Beraz, lehenengo inkestan (1998koan) jasotako emaitza baina 7 puntu handiagoa da; 2008koaren aldean, ordea, 7 puntu txikiagoa da. Enpleguen %71k ikasketekin lotura handi samarra edo oso handia zuen.
- Guztizkoaren gainetik, **enplegu egonkorra** (enplegu-emailea, kontratu finkoak, autonomoak eta kooperatibistak) %45,2 da; 2008koa baino 3,2 puntu handiagoa.
- **Autonomoen enplegu-tasa** (langile autonomo gisa edo kooperatibista gisa) %8ra iritsi zen. Arkitektura-

KARRERA AMAITU ETA LEHENENGO LANPOSTUA LORTU ARTEKO EPEAK



ikasketak egin dituzten erdiak autonomoak dira (%54), bai eta Arte Ederrak eta Odontologia ikasi dizuten ikasleek herenak ere. Zuzenbidean, ikasleek laurdenak ere autonomoak dira.

- Soldaten beherakada orokorra lizentziadunei ere ezarri zaie. Horren harira, **batez besteko diru-sarrerak hilean** 1.398 eurokoa izan zen (2008an, ordea, 1.511 eurokoa zen, eta 2009n 1.493 eurokoa). Kalkulua urteko 14 ordainsariren eta lanaldi osoaren arabera egin da. Emakume tituludun baten batez besteko soldata 1.354 eurokoa izan zen, gizonezkoena baino 110 euro txikiagoa. Soldata handienak osasun-arloan jaso ziren (1.660 euro) eta txikiak zientzia esperimentalen arloan (1.134 euro).
- Gehienek **hizkuntzak** erabiltzen dituzte lanpostuan. Haietako %52,7k euskara erabiltzen dute (ia %71k gizarte-titulazioetan) eta %30ek ingelesa (batez ere, titulazio teknikoetan eta esperimentaletan).
- Tituludunen %72,1ek enpresa pribatueta lan egiten dute (oro har, estatu-esparrukoak, %53,1). Multinazionalen txikiagoa da kopuru hori (%15,7). Tituludunen %27,9k sektore publikoan (enpresa publikoak eta enpresa publiko-pribatuak) lortu dute enplegua; bereziki, osasun-arloko eta hezkuntza-arloko lanpostuak dira.
- Honako **jarduera-adar** hauetan jarduten duten maizago: hezkuntzan (%19,9); higiezin-jardueretan, informatika-jardueretan, B+Gn eta enpresa-zerbitzuetan (%17,4); industrian (%15,5); eta osasun-arloan eta gizarte-zerbitzuetan (%15,4).
- **Lehenengo lanpostua lortzeko faktore** nagusiak unibertsitate-titulazioa edo espezialitatea izaten jarraitu zuen (%45,0). Atzetik, honako hauek datoz: «zortea» (%31,7); norberaren ezaugarriak (%27,5), hots, aurrea hartzeko gaitasuna, motibazioa, etab.; hizkuntzak jakitea (%20,1); lan-elkarriketa (%19,5) eta unibertsitate-praktikak (%19,3).

Datu horiei erreparatuta, Asier Aloriak, Gizarte Kontseiluko presidenteak, honako hauek nabarmendu nahi izan ditu:

- Hamahiru urtean UPV/EHUn lizentziatu eta egoera oso ezberdinetan lan-merkatura sartu diren pertsonen emaitzak aztertuta, behar adinako informazio dago, zenbait hausnarketa egiteko: garatutako lanaren eraginkortasunari buruz, Unibertsitatearen eta lizentziadunen etorkizunari buruz eta unibertsitate-zerbitzua hobetzeko hartu ahal diren neurriari buruz.
- Inkesta krisialdiko une txarrean egin bada ere, enplegu-tasa ia %70era iritsi da. Enplegu-maila are handiagoa da titulazio teknikoetan (%75), eta, bereziki, osasun-arlokoetan (%82).
- Negozio berriei ekiteko tituludunen gaitasunak erritmo motelean jarraitzen du gora egiten, eta %3,2 (2008an) izatetik %4,9 (2010ean) izatera pasatu da. Hala eta guztiz ere, oraindik oso urrun gaude Europar ohikoak diren ehunekoetatik. Horrez gain, aurre egin behar diogu

ekintzailetza-arloko oinarriko gaitasunak garatzeko erronkari, enpresa-proiektuetan erakutsiko baitira.

- Tituludun bat lehenengo enplegua bilatzen hasten denetik aurkitu egiten duen arte igarotzen den batez besteko epea bost hilabete eta erdi baino handixeagoa da. Prestakuntza-maila txikiagoa duten pertsonen taldean, ordea, handiagoa da epe hori.
- Unibertsitatea gako da prestakuntza handia eskatzeko duen enplegu bat aurkitzeko, eta datu hori berretsi du jasotako iritzien sailkapenak: lehenengo lanpostua lortzeko faktore nagusia unibertsitate-titulazioa edo espezialitatea (%45) da; ondoren, norberaren ezaugarriak (%27,5), prestakuntzari buruzkoak, hala nola aurrea hartzeko gaitasuna, motibazioa, etab.; hizkuntzak jakitea (%20,1); lan-elkarriketa (%19,5); eta unibertsitate-praktikak (%19,3).
- Titulazioa aukeratzekoan, generoaren arabera joerak daude. Horrek azaltzen du, hein batean, emakumei buruzko adierazleak hain onak ez izatea. Hori horrela, emakumeen %15 soilik lizentziatu dira titulazio teknikoetan. Arlo horretan, hain zuzen, eta osasun-arloan jasotzen dira soldata handienak (1.452 euro). Hortaz, orientazio handiagoa eman behar da, batez ere, unibertsitate-aurreko hezkuntza-etapetan emakumeen ehunekoak diru-sarrera txikiagoak edo lanaldi laburragoak bereizgarri dituzten ezagutza-arloetako lanpostuetan nagusi izan ez daitezela.
- Enplegua duten tituludunak, oro har, pozik daude lortu duten lanpostuarekin, eta, batez beste, 6,91 puntuko nota ematen diote. Ildo horretatik, kontuan hartzen dituzte, bereziki, lanpostuaren egitekoak (7,54) –hots, lana bera– eta pertsonen arteko harremanak (8,16), lanpostuan garatu dituztenak.

Txostena UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren webgunean (www.gizartekontseilua.com) kontsulta daiteke. Txostenaren emaitzak aintzat hartuta, Gizarte Kontseiluko presidentek honako ondorio hauek atera ditu:

- UPV/EHUK jarraitzen du prestakuntza-maila handiko profesionalak prestatzen, eta profesional horiek ezinbesteko funtzioa betetzen dute gure gizartearen.
- Enpresek, erakundeok eta gizarteak indar guztiak bildu behar ditugu, ezagutza-ahalmen guzti horren gramoz bat ere ez galtzeko: ahalmen hori sortzeak kostua izan duelako, eta ekarpen oso handia ere egin dezakeelako.
- Euskal herritarrek eta Gizarte Kontseiluak, UPV/EHUn gizarte ordezkatzen duen organoak, kontuan izan behar dute Unibertsitateak gizarteari eta enpresei eskuratzeko dizkiela gaitasun handiko tituludunak. Horregatik, lotura egonkorra eta sendoa sortu behar dira, ikasgeletatik lan-merkatura joateko bideak bermatzeko. Izan ere, hori eskatzen digute Europatik. Prestakuntza-maila ezin hobea lortzen ahalegindu diren milaka gazteri lan-aukera onak eman behar dizkiegu; ez da premia, gure obligazioa baizik.

ENPLEGU-KALITATEAREN ADIERAZPENAK, SEXUAREN ARABERA

	Ikasketekin bat datorren lana	Unibertsitate-titulua behar da	Unibertsitate-funtzioak	Lanaren eta ikasketen arteko erlazioa	Enplegu egonkorra	Soldatako langile finkoa	Batez besteko diru-sarrera hilean	>1.500 €-ko diru-sarrerak
Gizonak	↑ %84,1	–	–	↑ %73,5	↑ %50,6	↑ %45,7	↑ 1.461 €	↑ %31,5
Emakumeak	↓ %77,1	–	–	↓ %70,1	↓ %42,0	↓ %37,6	↓ 1.354 €	↓ %22,8
Guztira	%79,7	–	–	%71,3	%45,2	%40,6	1.398 €	%26,0

ENPLEGU-KALITATEAREN ADIERAZPENAK, JAKINTZA-ARLOEN ARABERA

	Ikasketekin bat datorren lana	Unibertsitate-titulua behar da	Unibertsitate-funtzioak	Lanaren eta ikasketen arteko erlazioa	Enplegu egonkorra	Soldatako langile finkoa	Batez besteko diru-sarrera hilean	>1.500 €-ko diru-sarrerak
Esperimentalak	%82,9			%69,3	↓ %31,2	↓ %26,7	↓ 1.134 €	↓ %8,8
Teknikoak	%90,3			%73,5	%53,7	%48,8	1.452 €	%34,9
Osasuna	↑ %97,1			↑ %96,5	↓ %29,7	↓ %27,0	↑ 1.660 €	↑ %49,2
Gizarte-zientziak	%77,2			%66,9	%40,9	%37,0	1.371 €	%20,3
Ekonomiko-juridikoak	↓ %55,5			↓ %64,2	↑ %55,6	↑ %51,6	1.290 €	%17,0
Humanitateak	%74,8			↓ %61,3	%41,6	%29,9	1.258 €	%13,2